



# BERRAKTIBATU+ ETA ERAIKI DEZAGUN MUNDU IRAUNKOR BAT

**BerrAktibatut** programaren bidez, herritarrei bizi ohiturak aldatzen lagundu nahi diegu, Euskadi gero eta leku iraunkorragoa izateko. Programa berri hau 2012 eta 2018 urteen artean Bizkaian landutako **Aktibatut** programaren ondorengoa da. Aktibatut programan 4.000 familia, 112 udalerrri, 66 ikastetxe eta 3 unibertsitatek parte hartu zuten. 57.000 pertsona aritu ziren horretan, guztira.

**BerrAktibatut** 2018 eta 2021 urteen artean garatuko da Euskadin. Familia, **ikastetxe** eta unibertsitateei zuzenduta dago eta doako hiru programa espezifiko ditu, modu paraleloan garatzen direnak. Web orrian, [www.reactivate.eus](http://www.reactivate.eus), informazio gehiago aurkituko duzu.

**Bizkaiko Foru Aldundiaren** ekimena da, [Eusko Jaurlaritzarekin](#), [Bilbao Bizkaia Ur partzuergoarekin](#), [Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin \(BGP\)](#), [Metro Bilbaorekin](#), [Eroski Taldearekin](#) eta ["La Caixa" Gizarte Ekintzarekin](#) elkarlanean garatua. [Global Action Plan \(GAP\)](#) izeneko planean oinarritua dago.

Izena eman nahi duten familia edo etxeek doan egin dezakete, programaren webgunean: [www.reactivate.eus](http://www.reactivate.eus). Behin erregistratuta, plataformak galdera erraz batzuen bidez ebaluatuko du eguneroko ohituren iraunkortasuna eta, ebaluazio hori eginda, ohitura horien eragin negatiboak murrizteko ekintza txiki eta xume batzuk proposatuko dira, informazio liburuxkak eskainiz, laguntza modura.



Bilbao Bizkaia  
Ur Partzuergoa  
Consortio de Aguas  
Bilbao Bizkaia



metro  
bilbao

